



ERANSKIN DOKUMENTALA

“Leyçaur I” -eko eranskin dokumentalaren atarian honela genion:

“Andoaingo historiari buruzko ikerketa monografikoez gain, aldizkariaren erredakzioaren asmoa zenbaki guztietan eranskin dokumental bat sartzea da, irakurleari originalean interesgarria izan daitekeen agiri bilduma bat eskaintzearen, ikerle edo aztertzailearen ikuspegi pertsonal edo balorazioaren iragazkirik gabe”.

Orain dela bi urte idazten genuena gaur ere hitzez hitz berresten dugunez, bigarren ale honetan ere azkeneko atala eranskin dokumentalari eskeintzea egokitza jo dugu.

Beraz, irakurle, hemen duzu *Leyçaur II* aldizkari honi dagokion eranskin dokumentala, oraingo honetan bi dokumentuz eta bando sorta batez osatua, alegia.

Lendabiziko dokumentua agiri unkiagarria da, Secundino Anton-ek -Plazaolako fatoreak- nazionalek fusilatu bezperan kartzelatik bere emazteari idatzitako azken gutuna. Gutuna benetan kilikagarria, gure aldetik inongo komentario osagarririk behar ez duena.

Bigarren eranskina mende honen hasieran Andoaingo zenbait Alkatek euskeraz emandako 43 bandoz osatua dago. Interes handiko bando sorta, dudarik gabe. Lehenik eta behin aipatutako bando hauek euskaraz idatziak direlako, bertan mende honen hasierako euskararen zenbait ezaugarri isladatzen direlarik; eta bigarren, garai hartako Andoaingo argazki bat osatzen dutelako, orduko bizitza eta ohituren ispilua izanik. Gaueskola, gorniya, jaiak, ihauteriak, tabernak eta sagardotegiak ixteko ordutegia, euria egin dezan otoitzak, lapurketak, Oria eta Leizaran ibaietan bainatu ahal izateko baldintzak, prozesioak eta gure aiton-amonen garaiko beste hainbat eta hainbat ohitura, kezka, iharduera eta zereginak dira bando sorta honek biltzen dituenak. Azterketa soziologiko sakon baterako dokumentazio aproposa, dudarik gabe.

Eta azkenik, hau ere andoaindarrentzat esanguratsua, Juan Bautista Larreta Arzac-ek 1908.eko abenduaren 27 an integrismoa defendatuz eta goraituz euskaraz emandako hitzaldi baten traskribapena dakargu. Dokumentu benetan mamitsua, eta honek ere, bere eduki politikoaz gain, hizkuntz ikuspegi batetik ere azterketa sakonagoa mereziko lukeena (1).

Orain, irakurle, dokumentu hauetaz gozatzeko aukera zeurea da!

(1) Lerro hauen bitartez JUAN JOSE LARREA Lasalleko anaiari gure eskerrik beroenak eman nahi genizkioke, bere lan isil eta nekaezinari esker Larreta-Azelain familiak Santanderen duen Artxiboa eza-gutu ahal izan dugulako. Bera dugu Andoaingo historia ezagutzeko hain garrantzitsua den Artxibo horren edukia azaltzen duen Inbentarioaren egilea, eta bera ere gaur traskribatzen dugun dokumentua eskuratu diguna. Mila esker, Juanjo!

I.

CARTA ESCRITA EL 18 DE OCTUBRE DE 1936 POR SECUNDINO ANTON (FACTOR DEL PLAZAOLA) A SU ESPOSA LA VISPERA DE SER FUSILADO POR LAS TROPAS NACIONALES.

Amada Juanita: Te escribo las últimas letras de esta vida para pedirte que tengas resignación cristiana. Dios lo ha querido así y hágase su Santa Voluntad. Juanita, educa bien a nuestras hijas enséñales a respetar mi memoria: que no vean en mí un culpable, que vean un martir. Consuela a mis pobres padres y que ellos te ayuden en lo que puedan, pues no me queda nadie más a quien recomendarte: las hermanas también te ayudarán. Aquí acaban de estar Sor Rosario y Sor Rosa a verme y ya me han dicho que ellas te protegerán y también te queda la protección de Dios Nuestro Señor que Este sí que nunca te abandonará, no tengo que reprocharte nada: Juani de mi alma, has sido para mí la mejor de las esposas si yo para tí he sido malo perdóname Juanita, y ruega mucho por mí yo desde el otro mundo velaré por tí y por nuestras hijas: Juani de mi alma: si Dios quiere darte un hijo pónle mi nombre, y si es niña el del Santo del día de mañana 19 de Octubre, que entregaré mi alma a Dios. Haz esta mi última voluntad y perdona a mis verdugos como yo les perdono de todo corazón.

Ahora, Juani mía, te voy a decir lo que tienes que hacer; los muebles y ropas de Andoain sácalos de donde están y los que puedas guárdalos para nuestras hijas. El Reloj de pulsera consérvalo tú como un recuerdo mío. También cobra cuanto antes de la Compañía lo que me adeude del Saldo de Depósito que tengo unas 150 pts. no te escribo más Juanita mía, cuidate mucho, que ahora nuestras hijas te necesitan mucho más, pues les falto yo y tu sola tienes que atenderlas.

Lee todo lo que va dentro de la cartilla militar y verás de que me acusan y quienes. Perdónale! Recibe el último abrazo de tu marido Secundino.



